



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2021eko urriaren 5eko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2021eko urriaren bostean, zortzi eta erdietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregulartasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

**Hor zirenak** : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Barkatuak zirenak** : GOICOECHEA Iñaki

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : CASIRIAIN Elena

Deialdiaren eguna : 2021eko irailaren 30a

Afitxatze eguna : 2021eko irailaren 30a

### **5.ERABAKIA 4G SAREAZ ESTALIA IZAITEKO DISPOSITIBOAN IZEN-EMAITEA** Nomenklatura : 9.1

Jaun Auzapezak azaltzen du Herriko Kontseiluari Estadoak eta telefono mugikor lau operadoreek (Bouygues Télécom, Free Mobile, Orange eta SFR) akordio bat izenpetu dutela 2018ko urtarrilan, 4G sare mugikorra orokortzeko eremu nazionalan.

Akordio hontan pentsatua da telefono mugikorren gune xurien ttipitzea Sarez Estalia izaiteko Dispositiboari esker. Alabaina, eremu batzuetan, operadoreek ez dituzte beren baitarik egitura behartuak hedatzen. Prefeta eta Departamenduko Kontseiluko Lehendakaria arduratzen dira baliabide horren animazioaz, tokiko-proiektu taldea osatzen dute eta urte guzietan, hautatu gune batzu trenkatu behar dituzte.

Trenkatzeko, operadoreei galdegiten zaizkie radio azterketak egitea. Landua den leku bat interes punduetaz osatua da (1-> 5) eta operadore bakoitzak aztertzen ditu. Bakoitzak puntu horien mementoko sarearen kalitatea erakusten du bai eta proiektuaz duen interesa ; ikerketak estimatzen du ere zozbat zutabe beharko diren punduen estaltzeko.

Azken hitza tokiko-proiektu taldeak du eta estadoari proposatzen dio. Epe baten buruan, finkatuko dena ministerio erabaki batean sartuko da. Erabaki horretan hautatu diren guneak operadoreei ezagutarazten dira, 24 hilabete gehienik dituzte ondotik 4G sarea idekitzeko.

Interes puntuak estaliaren helburuak dira.

Sortuko den puntu gorenak operadore frango errezebitzen ditu. Horietariko bat "buruzagi" gisa izendatua da, proiektua eramaiten du ministerio erabakiaren helburua lortzeko. Beregain dira proiektuaren gastu guztiak.

Puntu gorenaren edo puntu gorenaren lekua bai eta ekipamenduaren goratasuna berantago finkatuko dira, "buruzagi" operadorearen ikerketen ondoren : ezaugarri teknikoak konduan hartzen ditu (interes puntuaren estaltzea, elektrika, radio transmisioa, heltzeko errestasunak...) eta lurra (leku bat liburu den, lur alokatze edo eroste).

Hedatua izanen den teknologia 4G mugikorra da.

Ekipamenduak jartzen ahal dira dauden azpiegituretan ( bateragarria bada operadorearen eskakizun teknikoekin) edo sortzeko den zutabe baten gainean.

Herria bere osotasunean edo parte batean integratzen duen radio ikerketa bat jadanik egin izan da (ikus 2. eranskina).

Ikerketa horren emaitza eta delibero hau bozkaturik izen emaita osatuko dute.

Berantago, tokiko-proiektu taldeak aztertuko du eginen den hautaketa batean.

Ikusiz telefono mugikorren sarea txarra dela Herrian, proposatua da Kontseiluari Sareaz Estalia izateko Dispositiboan izena emaita.

Deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak boz gehiengo batekin,

ERABAKITZEN DU herriaren izena emaita Sareaz Estalia izateko Dispositiboan.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balitzko boz kopurua : 14

ALDE : 12

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 2

Hala erabakia, gainerako egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2021eko urriaren 5ean

Auzapeza,

Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,

2021/10/07an publikatu edo notifikatu ondoan,

Eta Prefeturan pausatu ondoan 2021/10/07an.

